

## ZERUKO ARGIA AZTERKETAN

Agindu genduen bezala, joan zen asteazken azterketa erako zenbait artikulu argitaratu genduen. Ikusi genduenaz, Z. ARGIAK batasun "H" arazoa asko aipatu zuen joan zen urtean. Baiña ez itsututa ibilli ginañala esateko moduan ordea. Beste zenbait gai interesgarri, sozial, ekonomi ta politikari buruz agertu zen eta egokitasun ederrean azaldu ere.

Gure Erriko arazoetaz behar dan neurritz eta ugaritasunez mintzatu ez ginañala diotenak ere ba dira. Gu ez gaude iritzi orrekin ados. Emen argitaratu diren lanik gehienek, zuzen zuzenean Euskal Erriko arazoak aztertzen dituzte. Nazio arteko arazoak eta gizon ospetsuei buruzko lanak kenduta, beste gehienak, danak ez badira, Euskal Erriri zuzenduak dira.

Gure ustez kritika egin behar baldin bazaigu, sakontasun ezaren kritika egin behar zaigu. Gai eder asko atera arren, ez dute batasun bat, linea bat, eduki.

Izan ere, aldizkari au askotan behintzat, nola atera izan dan, miraria, benetan arriztekoa da. Bakoitzak, bat eta besteak, bere mementoko umoreak eraginda, bialtzen zituen lanekin osatua izan zen aldiz aldiz. Baiña orrela ezin genezakean luzarozan jarrai. Asteroko bat dauka. Gure Errikoa. Euskeraz. Onek dena esan nahi du. Txantxetan ezin ginteke ibilli. Asteroko egoki bat osatu behar dugu. Inoren lotsarik ez duan aldizkari bat.

Ortarako, beste gauzen artean, taldeak sortu behar dira. Ez nolanhiko taldeak ordea. Jakintza eta esperientzia ongi jantzitako taldeak.

Pundu omen zerbait ari gera eta ba dugu itxaropen. Politika ta sozial arazoak aztertzeko talde bat osatua dago. ekazari arazoak aztertzeko ere bai eta baita urbanismo arazoak erabiliko dituen amaren bat arkitekto osatutako taldea ere. Arte eta musika alorretan idazle izendatuak ba ditugu eta pixkana, auetatik asiaz, talde bat osatzen joango da. Erlijio eta literatura mailan gaude behartsuen. Idazle batzuek lanak biali arren, oraindik talde aldetik begiratu gero, ezer aundirik ez dago eta gai auek garrantzikoak direla, deritzagu.

Egitamu edo plan bat eratu behar zela genion joan zan alean. Gaur egun ori egiteko bidean aurkitzen gera. Gauzak egosten dijoaz eta zerbait egingu dugulakoan gaude. Ahalik eta zabaltasun aundienean jokatu nahi genduko. Zabaltasun orrek bati baiño gehiagori miñ emango diola eta miñ ematen diola ere ba dakigu. Izan ers, ain tentakorra da aldizkari bat norik bere iritzien eta jokeren menpean eduki nahi izatea!

Z. ARGIA orretaz ongi oharzten da eta behin baiño gehiagotan adierazi ere, adierazi du, talde zehatz bati lotua ez da goela eta egotetik ere ez duela nahi.

Z. ARGIAK ba du poliki poliki elduz dijoan bere iritzia. Gure Erriaren alde lana egin nahi dugu eta eginkizun ori talde zehatz bati lotua egoten ez geran neurrian beteiko dugulakoan gaude. Bere nortasuna ba du eta bere nortasunean jarraituko du. Zipokeriak alde batera utzita lanerako prest dagoenari dei egiten diogu. Irakitazun batean, elkartasun batean lan egin nahi duenari dei egiten diogu. Gure Erria, Euskal Erria maite duenari, dei egiten diogu.

## EZI TA EREIN

### GAZTEAK ETA EZITZAILLEAK

Denok dakigu, gazte garaia, oso zaila dala. Sasio ta indarra ugari, baita bertan muga galantak ere. Gazteak, oartzten dira muga oietaz. Askotan entzungo ditugu ari dirala esaten: «Elkarrekin ikzetan egiten etzugu erakutsi. Tajuzko elkar-izketari ez diogu eusten. Gazteak elkarrekin arremnan izateko, batzutan asmorik ez izan».

Gazteak, gazte giroa aztertzen jarri ezkerro, berealaxe, ezitzaillen bearra daukatela, konturatzten dira. Ala diote: «Kontzientzia, norik eman bear digu? Nork erakutsi bear? Gazteek, laguntzaileak bear dituzte. Ezitzaillen bearra izan degu».

Gaztaroa, kontzientzia osatzeko garaia izaten da. Kontzientzia osatze orrek, lan zailak ematen ditu. Lan ortarako, nai ta naitz, kontzientzi osatutakoak bear. Orregatik, auxe agertzen zaigu garbi asko; gazteak, laguntzaillen bearra daukatela, au da, ezitzaillena.

Zertarako dute ezitzaillen bearra? Garbi esanda, nortasunaren kontzientzia oinarritzeko. Gazteek, gizon gorpuzta daukate, burua ez. Gazteri ari, gizon jatorrak bezela bizitzan jokatzan erakustea, izanen da ezitzaillen lana. Orretarako, garbi azaldu, zer dan gizona, bere aberastasuna eta bere galdibek. Giza herri bat sortzeko, gizona ezagutu da garbi ontako ezagueria. Gauza bera agertu eta erakutsierazi gure erriaren aldetik, bere jatoriasuna eta bere utsuneak. Ori dana gainera, bizitzu dijoala, ekin-tza aundi ta txiki batzuen bitartez azaldu.

Gazteak berak, aukeratu bear duen bidea, askatasun osoan lagundu ibiltzen eta ikusten nun diran jokabide zuzenak jatorrak eta okerrak. Itz laburrez esan da, ezitzaillen jokabidea, auxe izanen da; gaziñen sasioa zuzendu, giza ta erri kontzientzia osatu. Batek zion bezela: «gazteei gizon egiten lagundu». Alkartu bearra dago euskal osaeak esaten zuena: «Gazteak ilusioa, zaarrak esperientzia». Ori da ezitzea.

Nola asi bear du lanean ezitzaillak? Leenengo gauz arremnan izan, gero gazteak asko entzun.

Latxaga

# BAINA... EMILE MULLER-I "EZ" ERANTZUN BEHAR

«Esaten dedana da... dirala obra ilak, arrak joak, artoasko, utsalak».

Lizarraga

Arnegatuta gaituzte. Arestian, euria gureago zenean eta gure mendiak elurrez zuriutagoak, zauritua-  
goak gunituenean, ba zen zorione-  
go amets triste bat zeren orduan  
ere ba omen zekiten ametsetan  
zorazten, geroagokoetan murgiltzen,  
behinerekoetan axolagabetzen. De-  
na multzo omen ta multzoak mul-  
tzo ez loturik omen gure eguneroko,  
urteroko, gizaldietako eta hildako  
guztien hezurretan. Hegelek hone-  
la dio behinik behin. Eta horrega-  
tik gaituzte arnegaturik. Gurea den  
gaurko kondaira multzo askoz osat-  
ua den multzo delako. Ekinza as-  
koren ekinza. Katearen eraztuna  
delako. Atzazkaleen moztu ondoren-  
go betiko hazi-aldia. Erdi zuritutako  
mendiak delako. Zauritua-goko gau-  
delako. Berriro ere, lehen bezala,  
beti bezala, euria datorkigulako.

Ukabilak jasota, begiak erne, bi-  
hotz taupada azkarrenetan nengoan  
dena jakin nahian. Ihiztarien erbia  
irten arte, edo-ta irratien beste irra-  
tietako burruna sumatu bitartean.

Orduan etsita geunden eta arne-  
gatuta gaur. Zai, bai, zoriontsu nos-  
ki. Bainan... Eta dena multzo bi-  
hurtu zitzaigun. Bainan gu... Gu-  
ztion zorionerako zelakoan eta hor-  
relaxe da. Baina gu arnegatuta...  
Nik ere, ez pentsa, idazteari ekin  
diot beti bezala. Baina gu arnega-  
tuta bizi... Lur jota. Baina gu ar-  
negatuta bizi gara. Esan dut, esan  
dizuet, esanen diet. Arnegatuta gau-  
de; nere herrixkan erneatuta dau-  
dela esaten dute. Toki guztietan  
«Kabreatuta» daudela diote.

Zorionaren kaliza eskeini dugu  
haibat itxaropenen aldetean.

Anjel Lertxundi



**ZERUKO ARGIA**

**Zuzendaria:**

**MIREN JONE AZURZA**  
**ARISTEGIETA**

**Argitaratzailea:**

Nafarroako-Kantauriko ta  
Aragoiko Kaputxinoak.  
(Mayor, 50-1.-Burlada  
Pamplona).

**DONOSTIAN:**  
Oquendo, 22 - Tel. 26665.

«Le Monde»n (1971-I-18) Mulhou-  
se-ko alkateak argitara berria duen  
artikuluak ez du irakurlea hotz utzi.  
Ez ni neu, eta ez irakurri duten  
ene adiskide batzuk ere, jakin du-  
danez. Emile Muller-ek ba du me-  
rezimendu nabarmen bat: argi-eta-  
garbi eman du bere iritzia.

Zein da iritzi hori? Artikuluaren  
idazpuru bertan ausarki esan du  
Muller-ek: «Sozialismoa erakitzeko,  
ebaki egin behar da Komunista  
Alderdi»-rekin.

Zergatik? Emile Muller-en ustez,  
eta Ekialdeko Europan mende erdi  
baten barrena ikusi denez, «komu-  
nismoa ez da askatasun demokra-  
tikoan amaia bakarrik, baina baita  
ekonomi-aterapena ere». Beste al-  
de batetik hau dio: komunistak agin-  
tera iritzi diren erresuma guzietan,  
«sozial-demokrazia deuseztatua izan  
da... Marxismo-leninismoa ez du  
onhartu langileriak sortutako alder-  
di eta sindikatoen aniztasun edo  
pluralismoa: komunista alderdien  
menpean egin da beti batasuna;  
eta batasun horretantxe jarraitu be-  
har da, baita, besterik ez, so-  
vietar tankeen laguntzaren bidez».

Muller-en ustez jendea hasia da  
honetaz jabetzen; eta, zozoaren  
papera inork aurrerakoan bete na-  
hi ez duelako, sozialistak komunis-  
tekin jostatzen ibiltzeko uxatu omen  
du jende ugari, eskubi aldera bul-  
tatzat. Gainbehera hau gelditzeko,  
eta sozialismoa Europan eraiki ahal  
izateko beraz, «hautsi egin behar  
da arras Komunista Alderdiarekin...  
marxismo-leninismoa politika-bidea  
den aldetik beretik arbutatu».

Joan diren asteetan Prusian ikusi  
dugun zapaketa ez du zabalkun-  
de batera bulkatzen. Eta, bestetik,  
Frantziaren egun hauetantxe erabaki  
du Rocard-ek (Parti Socialiste Uni-  
fié delakoaren sekretarioak) Hiri-  
rengo hiri-hauteskundeetan P.C.-tik  
al jokatzera. «Gauschimo»-an, ezker-  
kerian, erori dela berehala salatu  
dute Frantziako komunista ofizia-  
lek; baina problema hor dago, eta  
ez beti eskuindarren aldetik.

Ene ustez, konturatu ere gabe,  
eskema errazetara jotzen dugu de-  
nok. Marxista-leninistek ez dute  
etsai bakar bat baizik aintzaketat  
hartu nahi: burgesia, hirirtzagoa.  
Burgesia erazi beraz, eta kito. Ge-  
hiegieria horren kontra erantzunez  
(eta Muller jauna barne, itxura de-  
nez) ez dute arrisku eta problema  
bat baizik ikusi nahi: komunismo-  
arena; edo «stalinismo»-arena, zen-  
baitek nahiago duen hizkera ontzat  
emanez.

Egia, ordea, hori baino nahasia-  
goa da, zoritxarrez. Komunistek na-  
razoin osoa ez dutela aitortu on-  
doren, Muller-ek problema hau al-  
derdi batetik bakarrik ikusten duela  
ere esan beharra dago.

Stalinismoaren hutsune larriak  
eta lerradura politziakoiak berri-  
azaldu beharrik ez dago. Aspaldi  
egin zuten Krutxefek, eta fanatismo-  
aren jopu izan nahi ez duten gu-  
zkiek ongi ezagutzen dituzte. Bide  
beretik, stalinismo hori oraindik  
ere marxista-leninisten artean joera  
nagusia dela, gauza ezaguna ere  
bai. Egari buruz zabalik egon nahi  
duenak ba dakiz horiek guziaz.

Baina kapitalismoaren zapalke-  
riak, burgesiaren diktadura osoa  
eta ezin-sakonagoa, hor daude ere.  
Eta kapitalismoaren okerreria fun-  
tsezkoaz «ahaztuzten» dena ez da

sozialista, eta are gizadiaren etsai-  
tzat salatu beharra dago.

Emile Muller, artikulu horretan  
bederen, «ahaztu» egiten bide da  
burgesiaren zapalkeak; eta «sozial-  
-demokrazia Europan... herriaren  
agintez nagusitu dela» esaten di-  
gunean, irribarre egin behar dugu,  
galdrak elkar-gaika datozkigulako:  
Nun nagusitu? Zertarako? Aleman-  
ian? Ingalaterran? Erresuma horie-  
tako trustek ez ote dute irabazkina  
jaintzat? Herri horietako kapita-  
lismoa ez ahal da aurrenik kapita-  
listata basa eta diru-gosea?

Ez dugu hemen sozial-demokra-  
ziaren azterketa egingo: kutsu txar-  
regia utziko lioket irakurleari. So-  
zial-demokraziak ez du gaur gihar-  
rik Europan; eta zergatik ote den  
ezin garbiago agertzen da: sozia-  
lismoaren asma bera ere aspal-  
dindik baztertua utzi duelako. So-  
zial-demokraziak ez du sinisten jus-  
tizia eta kapitalismoa elkarren ukat-  
zaila direnik.

Etsaia, beraz, ez da marxismo-  
-leninismoaren politziakoiakera ba-  
karrik. Jakina: burgesiari produzi-  
o-bideak kendurik ere, ez dago de-  
na eginek. Ez eta ez. Berogetia-  
-hamar urte honetan argi-eta-garbi  
ikusitako burgesia anizko gora bo-  
tata ere, iraultza egiazkoa mamitu  
gabe geldi daitekeala, eta sozia-  
lismoa iria kapitalismo-pean be-  
zain larruti ager daitekeala.

Problema asko dago; eta kon-  
ponbidea zaila da. Zoritxarrez, ber-  
riz diot, zailtasun hau ez zailo  
asokor ategin; baina egia nahi ba-  
dugu ikusi eta kontutan hartu, eta  
ez gogoko zaizkigun eskema urdin  
batzuei itsukerian eutsi, esan egin  
behar da gizonaren osakuntza eta  
liberatzapena gauza bat direla; bur-  
gesiaren hondamena beste gauza  
bat; eta komunismoak «alegiakoz-  
tatz», formal edo itxurakotzat, sa-  
latzen eta mesprezatzen dituen as-  
katasunak, beste gauza bat.

Are ghiago: teknokrazia eta bu-  
rokrazia ez dira kapitalismoarekin  
batera erazi daitezkeen problemaek.  
Teknokrazia eta burokrazia bai ka-  
pitalismoari eta bai ekonomiazko  
sozialismoari nagusitu zaizkien  
gaitzak dira; ordindorea edo est-  
reptomizina, ekonomi-moldeetan zer  
gerta ere, aurrera aterako diren  
bezala.

Gauza bera esan genezake arazo  
ethnikoek: problema hauek ez dira  
sozialismo/kapitalismo hauziaren ka-  
pitulu bat. Ez da egia. Etsi egin  
beharra dago.

Gizona askatzeko eta osatzeko  
(aska eta aska daitekan neurrian,  
kasu; ez bait da batere gauza agra-  
ria ez zer den eta ez nola iritsi  
daitekan helburu horretara!) ez da  
aski ekonomia mailako iraultza  
bat. Honetan Muller-ek egia du.  
Eta 68-ko Maiatzakoez, Marcuse-k  
eta trotskistek ez dute besterik  
esan aspaldi honetan.

Baina oker haundia egin deza-  
kegu, eta honetan argi oso ibili  
behar dugu, kapitalismoaren bar-  
ruan soluziorik aurki daitekeala er-  
tetik bederen sinistrazten badu-  
gu; hau ere gezurra bait da.

Hots, hauxe da, hain zuzen, eta  
artikuluaren funtsa ongi hartu bal-  
din badut, Emile Muller jaunari nik  
salatu uste diziakodan akats larria.

Larresoro